



1906



Txapeldunak

Peio Dospital
(24 selekzio)

Baionako Aviron taldearen himnoa

*Mende bat ari zaukula azkar eta erne
Aviron Bayonnais*

*Errugbian premiatsua da elkartasuna
Kontrakoen errespetua ta lagunena
Horrela baitugu lortzen garaipena
Dena xuri urdinez beztitzen da Baiona
Bihotz guzietan sendi da alaitasuna
Guzietan nagusi da gure peña*

*Agur agur
Aviron Bayonnais-ko ekipari
Gure herriko xuri urdineri
Biltzen gaituen "Jean Dauger"zelaiari
Txalo Txalo
Gure hamabost jokolarieri
Gogotik ari diren mutiler
Baiona ohoratzen duteneri*

*Mende Bat ari zaukula azkar eta erne
Aviron Bayonnais*

*Gure uztartzea denetan da famatua
Hegaletan ardura markatzen entsegua
Euskal Herri guzitik sustengatua
Gaztetxoan formakuntzan guziz aritua
Publikoak betidanik suhar jarraitua
Goratzuz aspaldiko izpiritua*

Jean-Claude Iriart



Youtube: Baionako Aviron taldearen himnoa eta zaleen kantak
3:48/7:59 hasten



Aviron-Bayonnais errugbi taldea

Aviron-Bayonnais taldea (euskaraz **Baionako Arrauna**) Baionako (Lapurdi) errugbi talde profesionala da. Ipar Euskal Herriko talde garrantzitsuenen auzokoa duen **Biarritz Olympique**ekin batera, biek urteko Iparraldeko euskal errugbiaren derbia jokatu ohi dutelarik.

Ikurrak

- Taldeko maskota **Pottoka** da.
- ABren himnoak **Peña Baiona** izena du, frantsesez zein euskaraz bada.
- AB taldeak **1913**ko Frantziako errugbi txapelketa irabazi zuen.

Hasiera

Hasieran (1904) arraun taldea zen (*aviron* = arraun) baina berantago taldea beste kirol anitzei ireki zitzaien. 1906an sortu zen **Aviron Bayonnais errugbi taldea** eta laster Frantziako txapelketako handien artean kokatu zen.

Jantzia

Kolore **urdin argia** eta zuria konbinatzen ditu **Avironek**.

Errugbiaren arau nagusiak

Jokalarien kokapena joko zelaian (15eko errugbia)

1 Ezkerreko harroina

2 Orpokatzailea

3 Eskuineko harroina

4 Bigarren lerrokoa

5 Bigarren lerrokoa

6 Hirugarren lerrokoa

8 Hirugarren lerroko erdikoa

7 Hirugarren lerrokoa

9 Uztartze erdilaria

10 Zabaltzailea

12 Lehen erdikoa

13 Bigarren erdikoa

11 Ezker hegalekoa


14 Eskuin hegalekoa

15 Atzelaria



Txapelketak**Kluben artekoak**

- Europa mailakoak:
 - Europako errugbi Kopa
 - European Challenge Cup
- Frantziakoak
 - Top 14
 - Pro D2

**Selekzioen artekoak**

- Munduko errugbi txapelketaren
- Sei nazioen Torneo (Europa)
- Hegoaldeko Championship

Arautegia eta antolaketa**Jokoaren helburua**

Partida batek **80 min** irauten du, 40 minutuko bi denbora-erdi. Helburua beste taldeak baino puntu gehiagoren markatzea da: entseguak markatuz (5 puntu) eta hauek gauzatuz (2 puntu). Zigor-entseguek 3 puntu ekartzen dituzte.

Entsegua: entsegu-gunean baloia zapaldu behar da. (5 puntu)

Entseguaren gauzatzea: baloia bi zutoinen artetik eta haga horizontalaren gainetik pasarazi behar da zangoz joz. (2 puntu).

Punpa-lasterreko ostikoa (drop): baloia punpa bat egin eta, zangoz jotzen ahal da, baloia bi zutoinen artetik eta beti haga horizontalaren gainetik pasaraziz. (3 puntu)

Arbitroa

Errugbiko arauak franko konplikatuak dira.

Eskuekin jokatzen da baina zangoz ere jo daiteke. Arbitroak hauek epaitzen ditu:

- Aurreranzko-pasea, avanta
- Uztartzea
- Alboko sakea
- Plakatzea, uztartze laxoa
- Alboko
- Jokoz-kanpoa,
- Zigorra, zigor-kolpezko gauzatzea...

**Galderak**

- a-Noiz sortu zen Aviron-Bayonnais taldea?
- b-Nor da taldeko maskota?
- c-Nola deitzen da himnoa? Zein dira taldearen koloreak?
- d-Noiz irabazi zuen Frantziako Txapelketa?
- e-Ba ote dakizu zer mailatan jokatzen duen Avironek gaur egun?

Terminologia	
Ingelesez	Euskaraz
Tackle	Plakatze
Scrum	Uztartze
Try	Entsegu
Penalty try	Zigor-entsegu
Conversion goal	Entsegu-gauzatze
Penalty goal	Zigor-kolpezko gauzatze
Dropped goal	Bote-lasterreko ostiko
Ruck	Uztartze ireki
Maul	Uztartze laxo
Mark	Marka
Penalty	Zigor
Free kick	Ostiko libre
Cavalry Charge	Zalduneriaren karga
Off-side	Jokoz kanpo
On-side	Jokoan
Knock-on	Aurreratua
Charge down	Karga
Throw forward	Aurreranzko pasea / Avanta
Kick-off	Erdiko sakea
Restart kick	Hasierako sakea
Touch	Alboko
Line-out	Alboko sakea
In-goal	Entsegu gunea
Touch line	Alboko marra
Goal line	Entsegu marra
Ball	Baloia
Referee	Epailea
Touch judge	Alboko epailea
Foul play	Joko zikina
Scrum half	Erdi uztartzea
Hooker	Orpokatzailea
Prop	Harroina
Lock	Bigarren lerroa
Flanker	Hirugarren hegala
Nº8	8. zenbakia

[Euskal Herrian](#) erabiltzen den Errugbi terminologia